

EIBAR

Ezkontza

Abentduaren 16an ezkondu jaku sudur motz espabiladu bat, Iñaki Sarasua gure adiskide ona. Odolean daroa musika zaletasun amorratua; izan ere, ez dau txikitatik alferrik entzun bere etxean musika baino besterik. Horrez galnera, Sarasua eta Gisasolatarrak senitar-tean dituanak ezin eikean beste zaletasunik euki.

Azitaineko ermita zaharrean ezkondu jaku, Nieves Astfazan, «Eibar Club Deportivo»-ko dantzari Iñaina zanarekin. Bizarbako kris-toak bat bihur dalzala behin betiko. Gure aldetik ba dabe aurrez ezkonberriok gure ezkon sari txikia, ANAITASUNA-ren harpidetza hain zuzen, familia euskaldun bat sortzen eta hazitzen lagun deloen.

Txartelak

«Sloganak» modan dagoz, eta are* gehiago autoetan ezarrizten direnetariko horreek. Itxura danez, danok el daukagu zer esatekorik. Herri txikiaren ere bat el dauka zertaz harrotu; eta hor nonbait Irukurri ahal izaten dogu edozenbat* lelokeria: «Villa Cordial», «Villa Leal», eta abar. Luzetxoagorik ere ba dago, Iruñekoa alegia, «Iruña, zezenak udan eta apaizak neguan», eta aberatsagorik ere bai, jakina, gurea hain zuzen, «Eibar, artez Zuloaga eta foballez... Garate».

Zuloaga-zaletzat dogu geure burua, eta aspalditxoko Garateren lagunak gara. Hala ere, ez ote dogu ezer jatorragorik, mamiagorik, geure herri ziztrin honetan?

Zezenzaleak

Eusebio Arregi, «Zezenzale Elkarte Eibartarra» izenekoaren lehendakari izendatu berria dogu. Orain, elkarte honen asmoen artean, zezen plazaren itzalpea egitea da berezietakoa. Hamasei milioiko presupostua el dauke (hilabetean milioitxo bat Igan* jake), eta «Delegación Nacional de Deportes» dalakoaren laguntasuna eskatzea erabaki dabe. Beraz*, esanak esan eta iraganak iragan*, zezen plazaren arazoa aurrera doala dirudi, zeregin horretarako aukeratu dan batzordearekin hain zuzen: Inazio Larrarte, Martiniano Larrañaga, Cleto Unzueta, Antonio Iraolagotia, Juan Gisasola eta Jose María Urizar. Dalako elkarte honek 650 bazkide el ditu, eta Eibarren ezezik, baita Soraluze, Elgoibar eta Ermuan sakabanatuak ere.

Gabon jaletan hasiera eman jakon «Zezenzale Elkarte Eibartarra» prestatutako zezen galei buruzko II Pintura Sariketari. Danetara, hogeitamalau lantxo azaldu dira, batzuk eibartarrek eginak, hau da, Arizaga, Arrizabalaga, Rementeria, Keller, Moreno eta Mandiola artistek eginak.

Txistulari berriak

Txistulari Banda Munitzipala erdibituta geratu jaku, Luzio Bengoa zanaren heriotzarekin eta «Maria-ospitxaleko» Pedro Alberdik txistulari lagatzeko* agertu dauan asmoarekin. Hutsune honek betetzeko, gazte bi izan dira aukeratuak, alegia*, Alberto Alberdi (Pedroren semea) eta Mireya Astiz, S.C.R. Arrateko Txistulari Taldean sortua eta ikasia. Zorionak biol.